



PRENTSA-OHARRA

Apirilaren 30ean amaitzen da epea Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleek ipuin eta komikiak aurkez ditzaten Haurrendako Literatur Lehiaketaren edizio berrira

laz 740 lan aurkeztu ziren, eta irabazle suertatu ziren lanak datozen asteotan argitaratuko dira

Iruñeko Udalak aurten ere Haurrendako Literatur Lehiaketa antolatu du, Iruñeko eta Iruñerriko ikastetxe publiko zein itunduetako Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzendua. Lanak aurkezteko mugaeguna apirilaren 30a da, astelehenarekin. Lehiaketan bi modalitate daude –ipuina eta komikia–, euskaraz eta gaztelaniaz, eta zenbait kategoria, ikasmailen arabera. laz 740 lan aurkeztu ziren, 529 gaztelaniaz eta 211 euskaraz. 2017ko edizioan irabazi zutenak datozen asteotan kaleratuko den liburu batean argitaratuko dira.

Ipuinen modalitatean 4 kategoria ezarri dira: A kategorian (LHko 1. eta 2. mailak) irudiz edo marrazkiz hornitutako ipuinek 2 folioko gehieneko luzera izan beharko dute; B kategorian (LHko 3. eta 4. mailak), 3 foliokoa; C kategorian (LHko 5. eta 6. mailak), 4 foliokoa; eta D kategorian (DBHko 1. eta 2. mailak), 6 foliokoa. Kasu guztietan alde bakar batez idatzita, eta ilustrazioak barne hartuta. Komikien modalitatean, A kategoriako ikasleek (LHko 5. eta 6. mailak) 3 folioko lana aurkezten ahal dute, gehienez ere; eta B kategoriakoek (DBHko 1. eta 2. mailak), 4 foliokoa; kasu bietan DIN A-4 formatukoak edo horren pareko neurrikoak.

Gaia librea izanen da, eta lanek jatorrizkoak izan behar dute, ez-itzuliak, eta gaztelaniaz edo euskaraz idatziak. Pertsona bakoitzak lan bakar bat aurkezten ahalko du modalitate bakoitzean. Lan bera ezin izanen da hizkuntza ezberdinetan aurkeztu. Ikastetxe parte-hartzaileek gehienez ere bost lan aurkeztuko dituzte lehiaketan ezarritako kategoria eta modalitateetako ikastalde bakoitzeko, ikastetxeak aldeaz aurretik hautatuak. Aurkeztu nahi diren lanak Kultura eta Hezkuntzako Alorrera igorri behar dira, gutun-azal itxi baten barruan, zeinean beste gutun-azal bat ere sartu beharko den, itxita, egilearen ikurritaz edo izenordeaz errotulatua, eta barruan egilearen datu hauek adierazita: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, ikasmaila eta ikastetxea.

Sariak eta epaimahaia

1. orrialdea, (e)tik 3



Lehiaketaren oinarrietan launa sari ezartzen dira modalitate eta kategoria bakoitzeko. Lehen sariak barne hartzen dute, batetik, 300 euro eskola-materialetan, ikastetxerako, eta, bestetik, 250 euro eskola-materialetan, egilearentzat. Bigarren, hirugarren eta laugarren sariak eskola-material sortak dira, egileentzat, 200, 150 eta 100 eurokoak, hurrenez hurren. Egile batek baino gehiagok egindako lanei saria ex aequo ematen bazaie, saria ere ex aequo banatuko da egileen artean.

Lehiaketaren epaimahaiburu izango da Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari Maider Beloki. Gaztelaniazko lanetarako epaimahaia osatuko dute Hizkuntza eta Literaturako irakasle batek, haur literaturako aditu batek, komikien arloko aditu batek eta udal-pedagogoak. Euskarazko lanetarako epaimahaikideak hauek izango dira: Hizkuntza eta Literaturako irakasle bat, haurren adierazpen plastikoko aditu bat, Euskaltzaindiako ordezkari bat Udaleko euskara-koordinatzailea.

HAURRENDAKO LITERATUR LEHIAKETA. LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEAK 2017-2018KO IKASTURTEA

- **Betekizunak:** Iruñeko edo Iruñerriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasle izatea.
- **Modalitateak:** ipuina eta komikia, gaztelaniaz zein euskaraz
 - Ipuina: A kategoria (LHko 1. eta 2. mailak. Gehienez ere 2 folio alde bakar batez idatziak, ilustrazioak barne); B kategoria (LHko 3. eta 4. mailak. Gehienez ere 3 folio alde bakar batez idatziak, ilustrazioak barne); C kategoria (LHko 5. eta 6. mailak. Gehienez ere 4 folio alde bakar batez idatziak, ilustrazioak barne); eta D kategoria (DBHko 1. eta 2. mailak. Gehienez ere 6 folio alde bakar batez idatziak, ilustrazioak barne).
 - Komikia: A kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak. 3 folio gehienez ere, DIN A-4 formatukoak edo horren pareko neurrikoak) eta B kategoria (DBHko 1. eta 2. mailak. 4 folio gehienez ere, DIN A-4 formatukoak edo horren pareko neurrikoak).
- **Lanak aurkezteko epea:** 2018ko apirilaren 30a arte, astelehenarekin, Kultura eta Hezkuntzako Alorrean (Descalzos kalea, 72, 31001 Iruña).
- **Lanen ezaugarriak:**
 - Gaia librea izanen da, eta lanek jatorrizkoak izan behar dute, ez-itzuliak, eta gaztelaniaz edo euskaraz idatziak. Ikasle bakoitzak lan bakar bat aurkezten ahalko du modalitate bakoitzean. Lan bera ezin izanen da hizkuntza ezberdinetan aurkeztu.
 - Ikastetxe parte-hartzaileek gehienez ere bost lan aurkeztuko dituzte kategoria eta modalitate bakoitzeko, ikastetxeak aldeztu aurretik hautatuak.
- **Sariak:** lau sari modalitate eta hizkuntza bakoitzeko. Lehen saria, 300 euro eskola-materialetan, ikastetxerako, eta 250 euro eskola-materialetan, egilearentzat; bigarrena, 200



euro eskola-materialetan, egilearentzat; hirugarrena, 150 euro eskola-materialetan, egilearentzat; eta laugarrena, 100 euro eskola-materialetan, egilearentzat.

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an